



Atsegin handiz aurkezten dizut "Euskarak Getxon badu etorkizunik II" izenarekin Getxoko Udalak argitara eman duen liburuxka hau.

Getxoko Udalak eskatuta SIADECO Ikerketa-taldeak udalerrian euskarak garai hartan zuen egoera soziolinguistikoaren azterketa zehatza burutu zuen 1995ean. Azterketa haren emaitzak "Euskarak badu etorkizunik" izeneko argitarapenean bildu ziren.

Urte batzuk pasa dira azterketa soziolinguistiko hura burutu zenetik, eta beraz, interesgarria iruditu zaigu, gaur egun, Getxon euskararen egoera zein den jakitea, eta bide batez, orain dela ia hamar urteko egoerarekin konparatzea. Baina ez da liburuxka honek duen helburu bakarra, izan ere, urtebeteko prozesu bati amaiera emanez, Getxoko Udalak oraintsu onartu duen Euskara

Biziberritzeko Getxoko Plan Nagusia ere aurkeztu nahi nizukeke. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, datozen urteotan Getxon euskararen normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plana da, Getxoko Udalari ez ezik herri-aginteei eta gizarteari ere euskararen aldeko hizkuntza politika egiten lagunduko dion tresna, hain zuzen.

Euskarak, normalizatuko bada, laguntza eta babesa behar ditu: familia bidezko transmisioa sustatu behar dugu, euskal hiztunen hizkuntza gaitasuna sendotu behar dugu, gizarte bizitzako esparru guztietan euskarazko zerbitzuak eta produktuak ipini behar ditugu eskura, gure hizkuntza eguneroko bizitzako tresna, erabiliaren erabiliaz aberasten den tresna izan dadin.

Langintza honetan, zeu ere bidelagun nahi zaitugu.

# I ATALA ZENTSUKO DATUEN AZTERKETA

DATU OROKORRAK  
EUSKARAREN JAKITE-MAILA  
AMA-HIZKUNTZA  
ETXEKO HIZKUNTZA



## DATU OROKORRAK

2003ko datuen arabera, Getxon 84.270 pertsona bizi dira. Getxok garrantzi demografiko handia du bai Bilbo Handian baita Bizkaian ere. Izan ere, hiru hiriburuak alde batera utzita, Getxo da Erkidego Autonomoko bigarren udalerririk handiena, Barakaldoren atzetik.

Getxo nabarmen hazi da azken urteetan, eta hazkunde horrek segida izan du azken hamar urteotan ere. Horrela 1991ean zituen 79.739 biztanletatik 2001ean zituen 84.637 biztanle izatera pasa da, biztanleen hazkundea, beraz, %6,14koa izan da azken hamar urteotan.

### GETXOKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA

1900	1930	1950	1960	1970	1975	1981	1986	1991	1996	2001	2003
5.442	16.859	19.309	22.951	39.153	56.238	67.321	77.282	79.517	84.334	84.637	84.270

Bestalde, Getxoko biztanleria zahartzen ari da. 1986an 0-19 urte bitarteko adina zeukaten getxotarren ehunekoak %33,23koa zen; hamar urte beranduago, %20,61. Aitzitik, 65 urtetik gorakoak %9,20 izatetik %12,77 izatera pasa dira.

Getxoko biztanleria, hala ere, Bizkaikoa eta Erkidego Autonomokoa baino gazteagoa da:

### 0-19 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN %

Getxo %23,60	Bizkaia %20,36	EAE %20,61
--------------	----------------	------------


## EUSKARAREN JAKITE-MAILA

### Hizkuntza gaitasuna

Getxoko biztanleen erdia (%48,56) erdaldun elebakarrak dira, hau da, ez dakite euskaraz hitz egiten. Getxoko euskaldunak %19,9 dira eta ia euskaldunak %31,53.

### GETXON IA 16.000 PERTSONEK DAKITE EUSKARAZ ONDO BERBA EGITEN

#### HIZKUNTZA GAITASUNA 2001




Azken hogei urteotako bilakaera aztertuz gero, zera esan genezake:

Batetik, erdaldun elebakarren beherakada handia izan da: %67tik 1981ean %48,5era hogei urte beranduago, hau da, hiru getxotarretatik bi erdaldun izatetik bitik bat izatera.

Bestetik, euskaldunen portzentajearen igoera handia izan da, bikoiztu egin dela esan genezake, %9,9 izatetik %19,9ra.

Azkenik, zonalde erdaldunetan gertatu ohi den legez, askoz gehiago dira ia euskaldunak euskaldunak baino. Hau da, euskaraz ondo hitz egiten jakin ez arren, euskara ondo ulertzeko gai direnek euskaldunak baino gehiago izaten jarraitzen dute gaur egun. Getxon 25.313 pertsona dira "ia euskaldun" definizio horren barruan sar litezkeenak, horietatik 17.218 pertsona "ia euskaldun alfabetatuak" (euskaraz ongi edo nekez ulertu, nekez hitz egin edo nekez irakurtzen eta idazten dutenak).



### ASKO MOTELDU DA EUSKALDUNEN HAZKUNDEAREN ERRITMOA

Azpimarratzekoa da 1996tik 2001era euskaldunen portzentajeak hazkunde erritmo askoz motelagoa izan duela aurrekoetan baino:

81tik 86ra euskaldunen ehunekoak →%30 egin zuen gora  
 86tik 91ra euskaldunen ehunekoak →%18,8 egin zuen gora  
 91tik 96ra euskaldunen ehunekoak →%34,5 egin zuen gora  
 96tik 2001era euskaldunen ehunekoak →%3,4 egin du gora

Moteltze hau, neurri batean, populazioaren zahartzearen eta jaiotzak gutxitzearen ondorioa izan liteke, izan ere, gazte eta haurren pisua txikiagoa baita biztanle guztiekin alderatzen dugunean.

### Hizkuntza gaitasunaren konparazioa

Getxoko euskaldunen ehunekoak Bilboko eta Bilbo Handiko euskaldunena baino altuagoa da, baina Bizkaikoa eta Erkidego Autonomokoa baino baxuagoa.

EUSKALDUNAK: Getxo %19,9 Bilbo Handia %16,72 Bizkaia %24,95 EAE %32,31

### ERKIDEGO AUTONOMOAN HIRU BIZTANLETIK BAT DA EUSKALDUNA. BIZKAIAN LAUTIK BAT ETA GETXON BOSTETIK BAT

Beste alde batetik, eta espero zitekeen legez, alfabetatze-maila ia erabatekoa da Getxoko euskaldunen artean, hamarretik bederatzik ongi idazten baitu.

	Euskaldun alfabetatuak	Euskaldun erdi alfabetatuak	Alfabetatu gabeak
Euskaldunen tipologia	%84,10 [13.435 getxotar]	%13,15 [2.102 getxotar]	%2,71 [438 getxotar]


### Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

Getxoko euskaldunak gazteak dira: getxotar euskaldunen %67,5 34 urtez azpikoa da eta %50 24 urtez azpikoa.

Adina	2-14 urte	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	>=65 urte
euskaldunen %	23,43	26,62	17,43	12,03	7,44	4,19	8,82


## GETXOKO BI EUSKALDUNETATIK BAT 24 URTEZ AZPIKOA DA

Ikus dezagun orain adinen araberako euskaldunen, ia euskaldunen eta erdaldunen banaketa:




■ EUSKALDUNAK ■ IA EUSKALDUNAK ■ ERDALDUNAK 2001eko zentsuko datuak

Euskaldunen ehunekoak behera egiten du adinarekin batera, baina 40-50 urtetik beherakoan artean joera aldaketa argia dago eta euskaldunen kopuruak gora egiten du nabarmen.



Azpimarragarria da hoguei urtez azpikoen artean euskaldunak gehiago direla erdaldunak baino. Dena den, kontuan hartu behar da gazte horien artean talderik handiena ia euskaldunena dela:



**HOGEI URTEZ AZPIKO HAMAR GETXOTARRETATIK:**  
**4 EUSKALDUNAK DIRA**  
**BESTE 4K ZER EDO ZER BADAKI**  
**2K EZ DAKI EUSKARAZ**

## 20 URTEZ AZPIKO GETXOTARRAK

Euskaldunak 5.798 gazte | Ia euskaldunak 5.880 gazte | Erdaldunak 2.998 gazte

Bistan da, botila erdi beteta edo erdi hutsik ikusi daitekeela, beteta ikusten badugu esango dugu gazteen artean gehiengo dela euskaraz berba egiten dakiena, baina, botila erdi hutsik ikusten dutenek zera esango dute: hoguei urtez azpiko 3.000 getxotar erdaldun elebakarrak dira.

## AMA-HIZKUNTZA

### Ama-hizkuntza

Getxo osoari dagokionez, ama-hizkuntza bezala euskara izan dutenak %11,3 izan dira, %7,2 euskara bakarrik eta %4,11 erdararekin batera.



## BEDERATZI GETXOTARRETATIK BATEK DU EUSKARA AMA-HIZKUNTZA

Orain arte ama-hizkuntza euskara zutenen kopururik handienak adin-tarte zaharretan aurkitzen genituen. Azken zentsuko datuek, ostera, joera aldaketa erakusten dute:


Egia da 65 urtetik gorakoek herriaren batz bestekoaren gaintik daudela ama-hizkuntza euskara izateari dagokionean (adibidez, 75 urtetik gorakoan artean %17,3k ama-hizkuntza euskara)

Egia da adinak behera egin ahala euskara ama-hizkuntza dutenen kopuruak ere behera egiten duela (adibidez, 40-44 urte adin tartean %8,1 ama-hizkuntza euskara dutenen ehunekoak)

BAINA, egia ere bada adin-tarte gazteenetan berreskuratzearen aldeko joera antzematen dela eta hori pozgarria da:

Adina	2-4 urte	5-9 urte	GETXO
Ama-hizkuntza euskara dutenen %	%21.77	%18.13	%11.3

Azken hamabost urteotan ama-hizkuntzak ez du bilakaera aipagarrikerik izan, berdintsu dagoela esan liteke. Ikus dezagun grafikoki:



## GETXOTARREN AMA-HIZKUNTZA NAGUSIA GAZTELANIA DA

	Euskara	Biak	Gaztelania	Beste bat
Getxo	7,18	4,11	87,08	1,62
Bizkaia	13,39	3,52	81,31	1,76
EAE	19,95	4,17	74,11	1,76

### Hizkuntza-bilakaeraren tipologia

Getxoko biztanleen erdia baino gehiago (%54,36) erdaldun zaharrak dira, hau da, ama-hizkuntza erdara izan duten erdaldunak.

Euskaldunei dagokienez:

→ Gehienak euskaldun berriak dira. Horrek esan nahi du ama-hizkuntza erdara izan dutela eta eskolan edo euskaltegian ikasi dutela euskara. Euskaldun berriak getxotar guztien %12 dira eta euskaldunen %59,6 (9.255 getxotar).

→ Euskaldun zaharrak, berriz, gutxi dira Getxon, biztanle guztien %5,3 eta euskaldunen laurdena %26,8 (4.155 getxotar).

→ Jatorrizko elebidunak %2,68 dira (2.100 getxotar)

→ Hizkuntza-gaitasunean bezalaxe, hemen ere pisu handia (%23,03) dute partzialki euskaldun berriek.


Ama-hizkuntza gaztelania izan dute eta euskaraz ondo hitz egiteko gai ez diren arren, ondo ulertzen dute euskara.

Beste muturrean euskararen galerak ditugu: batetik, partzialki euskara galdu dutenak %1,94 (1.523 pertsona) eta guztiz galdu

dutenak, 639 getxotar.

## GETXOKO 10 EUSKALDUNETATIK 6 EUSKALDUN BERRIAK DIRA


### HIZKUNTZA BILAKAERA 2001 GETXO



## ETXEKO HIZKUNTZA

### Etxeoko hizkuntza

Zentsuek 1991. urteaz geroztik beste datu bat ematen digute, etxean hitz egiten den hizkuntzarena, alegia. Honen arabera, 2001eko Zentsuko datuen arabera Getxoko biztanleen %8,35 dira etxean euskara darabiltenak (euskara baino ez edo gaztelaniarekin batera)



HAMABI GETXOTARRETATIK BATEK ERABILTZEN DU ETXEAN EUSKARA ETA HAMAR EUSKALDUNETATIK LAUK.

# II ATALA EUSKARAREN PRESENTZIA GETXOKO GIZARTE BIZITZAN

IRAKASKUNTZA  
EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA  
LEKU PUBLIKOAK  
MERKATARITZA  
ELKARTEAK  
GETXOKO UDALA



## IRAKASKUNTZA

### Irakaskuntza ez unibertsitaria Getxon (0-18 urte)

Ikus dezagun zein den, ereduak, Getxoko ikastetxeetan ikasten diharduten ikasleen banaketa, 2003-04 ikasturtean:

	A ereduak	B ereduak	D ereduak
Haur Hezkuntza [0-6 urte]	%33,01	%20,5	%46,45
Lehen Hezkuntza [6-12 urte]	%30,11	%20,99	%48,89
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza [12-16 urte]	%46,45	%16,81	%36,73
Batxilergoa [16-18 urte]	%64	-----	%35,98
Lanbide Heziketa	%100	-----	%0
GUZTIRA [0-18 urte]	%42,39	%16,40	%41,20


#### Ondorioak:

- 1- Haur Hezkuntzan 3tik 2 ari dira eredu euskaldunetan. A ereduak 700 ume daude.
- 2- Lehen Hezkuntzan 10etik 7. A ereduak 855 ume daude.
- 3- DBHn 2tik 1. eta 851 gazte A ereduak
- 4- Batxilergoan 3tik 1. eta 564 gazte A ereduak
- 5- Lanbide Heziketa Getxon, erabat, gaztelaniaz egiten da (490 gazte)
- 6- Orokorrean, 18 urtera bitarteko haur eta gazte getxotarren artean 3.460 haur eta gazte daude A ereduak.

### Hiru urtekoen matrikulazioa 2003-04 ikasturtean

2003-04 ikasturtean eskolan hasi diren 10 ume getxotarretatik:

- 5 D ereduak (270 ume)
- 3 A ereduak hasi dira (169 ume)
- 2 B ereduak (136 ume)



### Eskolako ereduak bilakaera Lehen Hezkuntzan (6-12 urte)


Azkeneko zortzi urtean, Lehen Hezkuntzan, ereduak izan duten bilakaerari begiratu. D ereduak gorantz egin duela esan genezake, 10 puntu egin du gora, %37,8tik %48,9ra; bestetik, B ereduak berdintsu mantendu da, gora behera handirik gabe, eta azkenik, A ereduak etengabe behera egin du 8 puntu galduz, %38,1etik %30,1era.

Hala ere, azken hiru ikasturteko datuei dagokienean, esan genezake bilakaera egonkorra egin da eta hiru ereduak berdintzen jarraitzen dute. Esate baterako:

D ereduak, 2001-02 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako ikasleen %46,7 zuen eta 2003-04 ikasturtean %48,9

B ereduak, 01-02an, %21,3 eta 03-04an %21

A ereduak, 01-02an, %32 eta 03-04an %30,1



## HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

### Euskalduntze-alfabetatzea

Helduen euskalduntzeak Euskal Herrian etengabe beherakada izan du ikasleen kopuruari dagokionean eta Getxon ere berdintzen gertatu da. Hala ere, badirudi beherakada apur bat galdatu egin dela 2002-03 ikasturtean eta, behin betiko daturik ez badugu ere, baita 2003-04 ikasturtean ere.

### 1.700 GETXOTARREK DIHARDU EUSKARA IKASTEN EUSKALTEGIETAN

Ikasturtea	Ikasle getxotarrak euskaltegiak	Getxoko euskaltegiak
98-99	2.147	1.675
99-00	2.040	1.532
00-01	1.801	1.284
01-02	1.634	1.205
02-03	1.716	1.215

## LEKU PUBLIKOAK

### Erabilera leku publikoetan: kale neurketak Getxon

Kale neurketen bitartez, Getxoko biztanleen hizkuntzaren erabilpen erreala neurtzen da. Hauexek dira SIADECOK Getxoko Udalarentzat, 1995ean, egindako azterketaren emaitzak (ikus "Euskarak badu etorkizunik" liburua):

Haurrak [0-14 urte] %4,3	Gazteak [15-24] %2,3	Helduak [25-64] %2,9	Zaharrak [65<] 1,3	GUZTIRA % 2,8
--------------------------	----------------------	----------------------	--------------------	---------------

EKB erakundeak eta hau desagertutakoan SEI elkarteak ere, metodologia berari jarraituta, lau urterik behin burutu ditu era honetako azterketak. Ikus ditzagun Getxoko emaitzak:

### GETXOKO KALEETAN EUSKARAREN PRESENTZIA OSO BAXUA DA

	1989	1993	1997	2001
Haurrak (0-14 urte)	%3,40	%6,13	%4,68	%9,75
Gazteak (15-24 urte)	%1,90	%2,91	%5,16	%2,09
Helduak (25-64)	%2,70	%2,58	%2,33	%4,60
Zaharrak (65<)	%3,70	%3,93	%0,20	%2,31
GUZTIRA	%2,80	%3,51	%2,22	%4,83

Eskuartearen ditugun azkeneko datuei, 2001eko, erreparatuta, euskara dakitenen artean lau getxotarretatik bat ari da euskaraz Getxoko kaleetan. Bistan da, beraz, oraindino euskara bigarren maila batean dagoela.

## LAN-MUNDUA

Getxo zerbitzu-hiria da. Izan ere, lan egiten duten biztanleen ia hiru laurdenak (%72,8) sektore horretan dihardu.


Getxoko Udalak "GEHI: EUSKARA MERKATARITZARA" izeneko egitasmoa ipini du abian 2003. urtean. Egitasmo honen helburua merkataritza sektorean euskararen erabilera sustatzeara izan da eta lehenengo urrats moduan, merkataritza sektorearen egoeraren inguruko azterketa egitea. Hona hemen azterketa honek utzi dizkigun daturik aipagarrienak:

### Merkataritza establezimenduak hizkuntza-egagupenaren arabera

Establezimendu erabat euskaldunak %7,9 dira eta mistoak, hau da, langile bat/batzuk euskalduna/ak eta beste bat/batzuk erdalduna/k %23,2


## GETXOKO HIRU ESTABLEZIMENDUETATIK BATEAN BADA EUSKARAZ ATENDITU DEZAKEENIK

### MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUEN HIZKUNTZA TIPOLOGIA EZAGUPENAREN ARABERA



Azterketa-lan honetan, irakurle, apenas dago euskararekiko getxotarren motibazioa eta jarrera zein den agertzen duen daturik. Ondoren datorren datu honetan, ordea, Getxoko establezimenduetako arduradunek euskararen inguruan duten jarrera azaltzen saiatuko gara.

### ETORKIZUNEAN ESTABLEZIMENDUAN EUSKARAREN PRESENTZIA AREAGOTZEAK IZAN DEZAKEEN ERAGINA, ARDURADUNAREN ARABERA



## GETXOKO HAMAR ESTABLEZIMENDUTATIK SEIK USTE DU EUSKARAREN PRESENTZIA AREAGOTZEAK ERAGIN POSITIBOA IZAN DEZAKEELA ETA HIRUK EZ OSO POSITIBOA.

Atal honekin amaitzeko beste datutxo bat: "GEHI: EUSKARA MERKATARITZARA" programaren barruan euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena izenpetzea proposatu zitzaizen dendetako arduradunei eta hauxe izan da emaitza:

Establezimenduak 1.196	Hitzartu 469	Hitzartutakoen % 39,2
------------------------	--------------	-----------------------


## ELKARTEAK

### GEHI: Getxo Euskalduntzeko Hitzarmena

Getxoko Euskara Zerbitzuak, aisialdi-elkarteetan euskararen egoera zer-nolakoa zen jakin nahian galdera sorta bidali zien arlo horretan diharduten elkarte eta taldeei. Getxoko 29 elkarteri bidali zitzaion galdera sorta eta 26k erantzun zuten.

Galdera sorta horrek utzitako emaitzetatik bi datu aukeratu ditugu elkarteetan euskarak duen egoeraren ispilu egokia direlakoan: bata, euskararen hizkuntza gaitasunari eta bestea, erabilerari dagokio.

## GETXOKO GAZTE ELKARTEETAKO HIRU BEGIRALETATIK BAT EUSKALDUNA DA ETA LAUTIK BATEK NAHIKO ONGI EGITEN DU EUSKARAZ



Getxoko gazte-elkarteetako begiraleek duten hizkuntza gaitasun maila udalerrriak duena baino altuagoa da, izan ere, hamar begiraletatik seik ongi edo nahiko ongi daki euskaraz.

Euskararen jakite-maila altu horrek, halere, ez du jarraipenik erabilerari dagokionean:

Hamar elkartetatik seitan euskararen arrastorik ez dago  
Eta hirutan euskaraz edo elebietara dihardute

Elkarte horiek, euskararen erabilerari begira honela sailkatu ditzakegu:

"A" taldea. Euskaraz ezer egiten ez dutenak, ez barrura ez kanpora begira.


"B" taldea. Gehiena gazteleraz eta zertxobait euskaraz egiten dutenak kanpora zein barrura begira.

"C" taldea. Den-dena elebitan egiten dutenak, kanpora eta barrura begira.

"D" taldea. Barrura begira gehiena gazteleraz baina kanpora begira gehiena euskaraz egiten dutenak

"E" taldea. Gehiena euskaraz egiten dutenak, bai barrura bai kanpora begira.

Grafikoki hauxe da elkarteen banaketa erabilerrari dagokionean:



## GETXOKO 23 ELKARTEK IZENPETU DUTE EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO HITZARMENA

Azpimarratzekoa da gazte-elkarte horietako gehiengoak, 29tik 23k, izenpetu duela "GEHI Getxo euskalduntzeko hitzarmena", beraz, bistakoa da elkarte horietan dagoen borondatea euskararen erabilera sustatzeko.


## GETXOKO UDALA

Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2002ko irailean onartu zuen, gehiengo zabal batez, Getxoko Udaleko Euskara Plana.


Udalaren egoera ondoko taulan adierazitako datuen bidez islatuta dago. Ikus daitekeenez, plantila organikoa osatzen duten langileetatik 252k dute derrigortasun data ezarrita, hau da, lanpostuen %43,1k. Ehuneko hau legez ezarritakoaren, %33,2aren, gainetik dago.

Derrig. datak	252 [%100]
Derrig. data izan eta hutsik	80 [%31,74]
Derrigortasun data izan eta salbuetsita	35 [%13'8]
HE egiaztatuta	67 [%26'58]

HE -1	19 [%7,5]
HE -2	3 [%1,2]
Egiaztatu gabe	48 [19,04%]



Hutsik eta salbuetsita dauden lanpostuak kenduko bagenitu 137 derrigortasun data geratuko litzaizkiguke eta, ondorioz, hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenak %47 lirateke. Grafikoki islatuta:



# III ATALA EUSKARA BIZIBERRITZEKO GETXOKO PLAN NAGUSIA

ZER DA GETXOKO EBPN?  
HELBURUAK  
PLANAREN INGURUKO LAU ZERTZALADA



Datozen urteetan hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko Getxoko herriaren [Plan Nagusia](#) Getxoko EBPN lau urteko plana izango da, [2003tik 2006ra bitartekoa](#). Getxoko Udalari eta gainerako herri-aginteei hizkuntza-politika egiten lagunduko dien [oinarrizko tresna](#). Dokumentu [irekia](#) eta eten barik egokitzeak sortua.

## GETXOK, EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (EBPN) ONARTU DU.

Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2003ko urriaren 31n egindako batzarrean onartu zuen Euskara Biziberritzeko Getxoko Plan Nagusia.

Getxoko Udalak onartutakoa, halare, ez da Udalak bere kabuz burutu duen lana. Osoko Bilkurak behin betiko testua onartu aurretik testuaren zirriborroa gizarteratzeko prozesu bati ekin zion:


Herri mailako bi aurkezpen burutu ditu Udalak.

EBPNren zirriborroa Getxoko ikastetxe, euskategi, elkarte, alderdi, sindikatu... guztiei bidali zitzaizen ekarpenak egin zitzaizten.

Euskararen munduan diharduten getxotarrez osatutako Getxoko Aholku Batzordea osatu da eta hiru bilera burutu ditu EBPN aztertzeko. Honen ondorioz, 13 ekarpen multzo (multzo bakoitzak hainbat neurriren inguruko ekarpenak zekartzan) jaso zituen Udalak, behin betiko testua aberasteko balio izan dutenak, hain zuzen.

## HELBURUAK

Plan Nagusiak honako hauek jasotzen ditu:



### EBPNren helburu nagusia

Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko, behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabaki eta bultzatu.

Maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko, euskararen aldeko urratsak areagotuz.

### EBPNren helburu estrategikoak

I-Euskara ondorengoetaratzea

- Hezkuntza
- Helduen euskalduntze-alfabetatzea
- Euskararen familia bidezko jarraipena

II-Euskara erabilera-eremuetara zabaltzea

- Administrazioa
- Teknologia berriak
- Lan mundua
- Aisialdia
- Kirola
- Ertlijioa

III-Hizkuntzaren elikadura

- Corpus plangintza eta euskararen kalitatea
- Komunikabideak
- Liburugintza
- Publizitatea
- Kultura

## PLANAREN INGURUKO LAU ZERTZELADA: ADIBIDEAK

Arestian esan dugun moduan Getxoko EBPN-k 14 esparrutan jasotzen ditu euskara sustatzeko neurriak. Hona hemen adibide bana, esparruka:

### IRAKASKUNTZA

- Eskola orduz kanpo, eskolan antolatzen diren astialdiko jardueretan, eskola kirolean ... euskararen erabilera sustatzeko plana.

### HELDUEN EUSKALDUNTZEA

- Getxotarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzea eta herrian dauden aukeren berri ematea.

### FAMILIA

- Haurtzaindegiek duten eskaintzaren azterketa. Euskara planak abian ipintzen lagundu.

### ADMINISTRAZIOA

- Getxoko Udalaren Sainean, Osoko Bilkurak 2002an onartu zuen Erabilera Normalizatzeko Plana garatu.

### TEKNOLOGIA BERRIAK

- Getxotarrek Interneten duten edo jarri nahi duten informazioa (web orriak...) euskaraz ipintzeko laguntza.

### LAN MUNDUA

- Merkataritza eta ostalaritza sektoreetan erabilera areagotzeko plana abian ipini.

### AISIA

- Laguntzak begirale agiri ofiziala lortzeko ikastaroa euskaraz egiten duten getxotarrentzat.

### KIROLA

- Euskara ikasteko dirulaguntzak kirol begirale eta entrenatzaileentzat.

### ERLIJIOA

- Eliz-jardueretan (katekesia, sendotza, mezak...) euskararen erabilera areagotzeko planak abian ipintzen lagundu.

### CORPUSA

- Getxoko euskalkiaren azterketa egiteko beka.

### LIBURUGINTZA

- Euskal literatura bultzatzeko herrian dauden ekimenak sustatu.

### PUBLIZITATEA

- Dirulaguntzak eta doako itzulpen zerbitzua enpresentzat publizitatean euskara erabiltzeko.

### KULTURA

- Kultur elkarteetan euskararen erabilera areagotzeko plana.GEHI Getxo euskalduntzeko hitzarmena.

### KOMUNIKABIDEAK

- Herriko euskarazko komunikabideei laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera esleitu dirulaguntzak.

EBPNren edukia osorik ikusteko:

[www.getxo.net](http://www.getxo.net)